

BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

HPINek egindako inkestaren arabera euskaldunek leialtasun handia diote euskarari

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak 1991n Euskal Herri osoan egin zuen soziolinguistikazko inkestaren arabera euskaldunek leialtasun handia diote euskarari. Inkestaren emaitzak biltzen dituen Euskararen Jarraipena izeneko liburua dagoeneko inprentan dago. Hona hemen liburu horretatik ateratako zenbait gogoeta.

- Euskaraz hitz egiteko baldintza objetiboak betetzen direnean, elebidun gehienek euskaraz hitz egiten dute beren artean. Aldeko jarrera dutenek ez alde ez aurka daudenez edo aurka daudenez baino gehiago egiten dute euskaraz.

- Oro bar, elebidunek euskaraz bitz egiten dute etxean eta euskaraz erdaraz hainbat etxetik kanpoko gertuko komunitatean, baina erabilera eremurik formalenetan euskararen erabilera gutxitu egiten da.

- Elebidunen artean, erdiak baino gehiagok, erdaraz ezezik, nagusiki euskaraz hitz egiten dute azokan, apaizarekin, seme-alabekin, seme-alaben eskolako irakasleekin, amarekin, aiton-amonekin, anai-arrebekin, aitarekin, etxean, familiarekin bazkal edo afal orduetan eta senarrarekin edo emaztearekin. Familiaren barnean, badirudi euskararen

erabilera handiagoa dela belaunaldien artean seme-alabekin, gurasoekin eta aiton-amonekin- belaunaldi berekoen artean -senar edo emaztearekin eta anai-arrebekin baino.


- Beste erabilera eremuetan, berriz, euskara gutxiago erabiltzen da, nagusiki euskaraz hitz egiten dutenak erdiak baino gutxiago baitira: udaletxean, lagunekin zerbait hartzera ateratzean, banku edo aurrezki kutxako bere sukurtsalekoekin, eguneroko erosketak egiten diren dendetako saltzaileekin eta lankideekin. Aitzitik, osasun zerbitzuetako langileekin eta laneko jefeeekin nagusiki

erdaraz hitz egiten dute elebidun gehienek.

Emaitzon arabera esan daiteke euskaldunek leialtasun handia diotela euskarari oso kontuan izan behar baita, batetik, euskaldunek euskaraz hitz egiteko ezinbestekoa dela solaskideek ere euskaraz jakitea eta, bestetik, euskaldunek, ia guztiak elebidunak direnez gero, une oro, euskaraz edo erdaraz aritzea aukera dezaketela. Beraz, erabilerari buruzko emaitzak ezin balora daitezke, inondik inora, euskaldunek beti euskaraz hitz egin beharko luketela uste izanaz.

Nola hitz egiten duzu...?

Euskaldunen artean soilik egindako inkesta



Iturri : HPIN

Alberto Agirreazaldegia, eguneroko lan isilean

Alberto Agirreazaldegia, 42, Elgoibarren bizi den elgetarrak bi eremu oso desberdin jorratu zituen ikasle garaian. Elektronika arloan

maisua industrial bilakatu eta gero, Filosofia eta Letretan lizentziatu zen. Garai hartakoa du Heriotza Euskal Herrian liburua, aita Barandiaranen omenez egin zuen lanean oinarritua. Oso gazte oraindik, ikastolen sorrerako mugimenduan ere hartu zuen parte. Bere lan eskarmentuan ere polibalentzia hori nabari da. UZEIko

zuzendaritza hartu baino lehen Plaentxiako ikastolan eta Lanbide Heziketan irakasle izan zen, Fagor kooperatibako Giza Baliabideen Sailean tekniko eta Eibarko ikastolan zuzendari. Berak dioen moduan "hizkuntzen industrian" ari da buru-

belarri UZEIn. Hiztegi espezializatuak sortu, egungo euskararen corpusa bildu, Euskaltzaindiaren hiztegi batuko proiektuan parte hartu eta



Alberto Agirreazaldegia

autofinanziaziorako beste lan batzuk aurrera ateratzeaz gain, UZEI informatikaren eta telematikaren aroan murgildu da Alberto Agirreazaldegiren zuzendaritzapean.

Lanetik kanpo, herri kazetaritzan ari da ilusio handiz. Orain bi urte Elgoibarko Izarra elkarteko beste gazte euskaltzale batzuekin batera sortu zuen Barren astekaria zuzentzen du. "Aspaldi

honetan euskarak Elgoibarren bizi izan duen aurrerakadarik handiena ekarri du Barren aldizkariak".

Ez da bidekarga makala eguneroko lan isilean eta etengabe sinesten duen sustatzaile nekagaitz honentzat.

Klaudio Harluxet Fundazioa

Jaio berri den Klaudio Harluxet Fundazioak pentsamendu unibertsala bilduko duen datu-banku entziklopediko informatizatu multimedia sortuko du.

Euskaraz landuko den informazio hau guztira terminal informatikoen bidez kontsultatu ahal izango da, telefonoa erabiliz.

Datu-bankuak bi atal nagusi izango ditu: onomastika atala, beste azpiatal hauekin: onomastika fitxategi nagusia, artelanak, erakundeak eta toponimia historikoa. Bigarren atal nagusia lexikoari dagokio. Informazio teknologiarren munduan gertatzen ari den iraultzak bide berriak ez dituzten hizkuntzak arrisku bizi jar ditzakeela jakinik, Klaudio Harluxet Fundazioaren helburua fondo entziklopediko bat biltzea, mantentzea eta zabaltzea da.

Eusko Jaurlaritzak 27 milioi pta eman dizkio helburu horretarako.

Euskara zine aretoan.

Bideo eta bikoizketa produkzioak egiten dituen Word Baske Export etxeak Euskara Zine Aretoetara (EZA) proiektua sortu du, euskara zine aretoetara ere zabaltzeko. Urtean lau filme euskaratu eta proiektatuko ditu Euskal Herriko zine aretoetan, beti ere eskola orduetan, haurrak eta gaztetxoak bereziki joan ahal daitezen.

Herrien Europako mapa.

Coinpasa ingeniaritza topografiko eta zerbitzu enpresak Herrien Europa mapa jorratu du. Juan Jose Pujanaren zuzendaritzapean hiru kartografo1e eta geografo batek egin dute lan proiektu honetan. Euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu den gida honetan, lan kartografikoa talde etniko bakoitzari buruzko ikerketa laburra biltzen duen liburuxoarekin osatu da.

EAEko herrien izen ofizialak.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza Sailak EAEko herrien izen ofizialen zerrenda eman du argitara aldizkari ofizialean. Arabari aldaketa bat dagokio; Bizkaiari zazpi eta Gipuzkoari bi. Aldaketa batzuk udalen eskariz egin dira. Beste batzuk udalerrriak banatu izanaren ondorioz. Zerrendak izena aldatzeko bidean diren udalerrriak ere aipatzen ditu.

Hizkuntza gutxituen

Vade-Mecuma. Europako Hizkuntza Gutxituen Bulegoak Europako hizkuntza gutxituei dagozkien agiri ofizial, laguntzarako egitura eta ekintzen programen gida eman du argitara hizkuntza desberdinetan. Immaculada Pagés i Valls katalanak prestatu duen argitalpen hau oso baliagarria da Europako Batasunean gai honen inguruan egin dena jakiteko.

Euskalterm, kontsulta-zerbitzu telematikoa

Euskalterm zerbitzuak UZEIren datu-banku terminologikoa telefono bidez kontsultatzeko aukera eskaintzen du.

Datu-banku honetan UZEIk argitaratu dituen hiztegi guztiak, egindako itzulpenen hustuketa, hainbat kontsulta eta beste iturri batzuetatik jasotako faxak daude bateratuta eta telefono-sarean lotura egiteko prestatuta. Guztira, 150.000 fitxa kontsulta daitezke lau hizkuntzatan (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez).

Zerbitzu irekia da, ez da inolako kontraturik egin behar UZEIrekin eta konexio-denbora bakarrik ordaintzen da, kontsulta egiten igarotako minutuen arabera.

Kontsulta egiteko ordenadore pertsonala eta moderna behar dira. Bi bide nagusitatik lor daiteke konexioa:

- Bideotex sistematik, Ibertex sarean sartuta.

Bide hau hautatuz gero

ordenadore pertsonala (PC edo Macintosh) eta V23 araua onartzen duen moderna behar dira edo bestela bideotex terminala, CEPTI araua onartzen duena.

- ASCII-VT 100 sistematik, Spritel sarean sartuta.

Spritelen bezeroek aski dute konexioa lortu ondoren UZEI zerbitzua eskatzea.

Euskalterm kontsulta-zerbitzu telematikoa 1992an jaio zen eta urtean 5.000 dei inguru jasotzen ditu. Laurogei erabiltzailetik gora ditu, herri administrazioak gehienak.

Zerbitzu irekiak gain, badago zerbitzu profesionala ere, mezuak bidali eta jasotzeko posta elektronikoa eskaintzen duena.

Informazio gehiago edo erabiltzailearen eskuliburua eskuratu nahi izanez gero, aski da UZEIra eskatzea.

Helbidea: UZEI, Aldapeta, 20, 20009 Donostia.

Tfnoa. (943) 47 33 77.

Francisca Zabaleta, irakasle leitzarrak Bigarren hizkuntzaren irakaskuntza murgiltze-ereduan liburua argitaratu du Zubia argitaletxean. Zabaleta Nafarroako UNEDeko Psikologia irakasle eta Nafarroako Gobernuako HPZNeke teknikaria da.

Ludger Mees, 38, irakasleak Euskoeuropa liburua argitaratu du. Elkarrek eta HAEE/IVAPek argitaratua, liburuak Mees-ek Euskadi Irratian eta DV egunkarian argitara emandako artikuluak biltzen ditu. Ludger Mees Alemaniako Essen hirian jaio zen. Giza Zientzietan, Historian eta Pedagogian lizentziatua, EHUko irakaslea da.

Martin Ugarte "Saletxe", 77, legazpiarrak Legazpi Barrutiko Itzen Bilduma liburua argitaratu du. Baserrian bizitzeak ez dio hainbat liburu argitaratu izana eragotzi, hala nola On Egiñaren Obaria eta Jatorriaren Errotik.

Argitalpenak

Antologia de la Literatura Vasca

Patri Urkizuk prestatu eta UNEDek argitaratu duen liburu honek -euskal literaturaren ikuspegi orokorra eskaintzen du, Erdi Arotik hasi eta Gabriel Arestirekin amaituz. Jatorrizko testuak gaztelaniazko itzulpenen ondoan datoz. Hiru kaseterekin dator, ikasle erdaldunak testuak euskaraz entzuteko parada izan dezan.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia
Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gazteleraz

Izen-deiturak:
.....
Helbidea:.....
.....
Herria:
Kodea:
Lurraldea:
Tel.:

Galdezka

Aldaketen eragina

G. Zer eragin izango du m. Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia Kultura Sailean kokatzeak?

E. Lehen sail ezberdinetan eta euskararen normalkuntza helburu zuten hainbat zerbitzu orain egitura bakar batean biltzea litzateke ondoriorik nagusia.

Nire iritziz, hori mesedegarria izango da hizkuntza normalkuntzarako, bi arrazoi hauengatik:

- Batetik, zerbitzuen arteko disfuntzioak errazago saihestuko direlako eta, horren ondorioz, giza eta diru baliabideei etekin hobea aterako zaielako.

- Bestetik, hizkuntza politikazko ekintzabideak irizpide bateratuen arabera gauzatuko direlako.

M. Karmen Garmendia.

Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia

Euskara ordenadore bidez ikasteko

Bilboko Didaktiker enpresak Benetan euskaraz SV euskara ordenadore bidez ikasteko sistema aditua kaleratu berri du.

Sistema aditua da ikaslearen beharretara molda daitekeelako. Ikaslearen erantzunetan oinarrituta, programak haren akats errepikatuenak neurtzen ditu, ondo ikasi ez dituen egiturak zehaztu eta akats horiek guztiak konpontzeko urrats didaktikoak proposatu. Hamabi urtetik gorakoentzat egin da, euskara beren kabuz ikasi nahi, euskaltegi nahiz institutuetan ibili edo astirik ez duten ikasleak gogoan izanda.

Zortzi mailatan dago zatitua, HABEk euskalduntze prozesua banatzen duen zortzietan oinarrituak, nahiz oraingoz lehen hirurak baino kaleratu ez. Hurrengo hirurak datorren

udarako izango dira kalean. Maila bakoitza 25 ikastunitatetan banatzen da eta hauetako bakoitza batazbesteko ikasleak 100 bat ordutan ikas dezake. Edukia fitxatan egituratu da, 1.200 ariketa osagarriekin dator eta hiztegia aberasteko jolasak eta hiztegia ditu. Disketearekin batera programa nola erabili erakusten duen liburuxoa eta ahoskera ariketak dituen kaseta banatzen dira.

Egileen arabera *Benetan euskaraz SV* erabateko programa da, euskara urratsez urrats eta era sendoz ikastea ahalbideratzen duena, ikasleari zailen egiten zaizkion edukiak bereziki lantzen dituelako.

Benetan euskaraz SV edozein PE ordenadoretan erabil liteke, Macintoshetan izan ezik. Salgai dago 6.000ptatan.

✓ Kontutan hartzeko

- **M. Karmen Garmendiaren hitzaldia Parisen.** M. Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak hitzaldia emango du otsailaren 9an Frantziako hiriburuko Goi Ikasketen Ikastetxean. Hitzaldiaren gaia Elebitasuna Euskal Herrian izango da.

- **Eibarko " ... eta kitto" aldizkariaren 100. zenbakia.**

Jose Mari Zeberio, Hizkuntza Politikarako idazkari nagusi berriak Herri prentsaren geroaz izeneko mahainguruan eskuhartuko du otsailaren 9an, Eibarko Topalekuan, arratsaldeko 7:00etan. Mahainguru hau eta beste ekintza batzuk Eibarko "...eta kitto" euskara elkarteak antolatu ditu, " . . eta kitto" herri aldizkariaren 100. zenbakia ospatzeko.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

